

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako fauna eta floraren kontserbazioa, Mehatxatutako Espezieen Katalogo berri batean

*Faunako 39 espezie eta florako beste 185 sartu dituzte foru dekretu  
proiektu honetan babes berezia emateko*

Ostirala, 2019.eko urtarrilak 11

Foru Gobernuak otsailaren 1era arte irekiko du Mehatxatutako Espezieen Katalogoa eta Nafarroako babes bereziko fauna eta florako Espezieen Zerrenda definitzeko kontsulta publikoaren aldia. Babes Bereziko Nafarroako Espezie Basatien Zerrendari loturiko Katalogo hori Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak onartu eta kontsulta publikoan jarri duen [Foru Dekretu proiektu](#) honen bitartez definitu eta babestuko da.

Zerrendan bildutako fauna eta flora basatiko espezieek “berariazko arreta eta babesa merezi dute beraien balio zientifiko, ekologiko eta kulturalagatik, bakantasan edo arrarotasunagatik eta mehatxu mailagatik”, testuak dioenez. Dekretu proiektuan aurkeztutako hasierako zerrendak florako 185 espezie eta faunako beste 39 bildu ditu babes berezia emateko. Horiek guztiak ez zeuden jasota Mehatxatutako Espezieen Espainiako Katalogoan edo egoeraz aldatu dira, kalte-arriskuan egotetik desagertzeko arriskuan egotera igaro direlarik.

Jasotako espezieen artean, zuhaitz zaharren zur hilean bizi diren intsektuak, koleopteroak, hegaztiak eta saguzarrak sartu dituzte, izan ere, baso helduak Nafarroan hartzen ari diren garrantziaren ondorioz, nahitaezkoa da espezie horiek guztiak kontserbatzea. Desagertzeko arriskuan dauden espezieen artean, basoiloa eta basoilo txikia gisako estepako hegaztiak daude, baita eper grisa, eper zuria, aztore-arranoa, amiltxoria, apo pintatu iberiarra, bagrea, mazkar arantzaduna, karramarro autoktonoa, *Gomphus Graslini* sorgin-orratza eta perla-muskuilua.

Deskribapenez, diagnosiaz eta argudioez gain, espezie bat zerrendan sartzeak, besteak beste, horiek “jaso, moztu, mutilatu, erazi edo nahita suntsitzeko” debekua dakar landare-espezieen kasuan eta “hil, harrapatu, jazarri edo eragozteko debekua, baita habiak, bititokiak edo ugalketarako, negualdirako zein atsedenerako lekuak narraiatu edo txikitze debekua ere”, animalien kasuan. Katalogoan sartu ondoren, Foru Administrazioak espezie horiek kontserbatu edo berreskuratzeko planak abiarazi behar ditu, denboran iraunkorrak izan daitezkeen populazioak bermatzeko xedez.

### **Ekarpenak, otsailaren 1era arte**

Interesdun erakunde edo pertsonen ekarpenak egiteko eta hasierako

zerrenda osatu eta aldatzeko aukera ematea da otsailaren 1era arte irekitako alde zuzeneko kontsultaren helburua, betiere ondo argudiatu eta dokumentatutako informazioaren laguntzaz.

Nafarroako espezie babestuen oraingo zerrenda 1995ekoa da, urte hartan onartu baitzen fauna basatiko ornodunen lehendabiziko katalogazioaren Foru Dekretua, baita 1997koa ere, orduantxe onartu baitzen Mehatxatutako Floraren Katalogoari buruzko Foru Dekretua. Horiek argitaratu eta 20 urte baino gehiago igaro direlarik, beharrezkoa zen zerrenda eguneratzea, espezie horiek Foru Komunitatean zein inguruko autonomia-erkidegoetan izandako bilakaeraren eta egungo egoeraren arabera.

Bestetik, nahitatezkoa zen Nafarroako testua Estatuan dagoen araudira egokitzea. Zehazkiago esanda, 2007ko Ondare Naturalari eta Bioaniztasunari buruzko Legea, bertan jaso baita babes bereziko espezie basatien zerrenda, eta honen barnean, Mehatxatutako Espezieen Espainiako Katalogoa, biak ala biak 2011ko Errege Dekretu baten bitartez onartutakoak.

Beste autonomia-erkidego batzuetan bezalaxe, Nafarroan indarrean dago Estatuko espezie babestuen zerrenda, baina foru dekretu berri honen bitartez, Foru Komunitatean babes berezia behar duten espezieak gaineratu nahi zaizkio.